



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Urteroko hitzordua iritsi da, goazen Bioterrara!



ENEK

Elikagai ekologikoen ekoizpena eta kontsumoa bidea urratzen ari dira apurka, eta hori mundu osoan zehar gertatzen ari da. FiBL eta IFOAMek sektore ekologikoari buruz egindako azken txostenean ("The World of Organic Agriculture. Statistical & Emerging Trends 2017") hala gelditzen da islatuta.

Euskal Herrian daukagun kontsumo-mailari buruzko datu zehatzen faltan, erreferentziatzat hartu ditzakegu aipatu txostenak Estatu espainolerako ematen dituen datuak. Duela gutxira arte, kontsumoaren alorrean atzeko postuetan egotetik (ez horrela ekoizpenari dagokionez, non mundu mailako lehen postuetan dagoen Estatu espainola) kontsumo gehien duten herrialdeen artean izatera pasa da. Horrela, bi urtean, pertsona bakoitzeko urteko gastua 32,3 eurora igo da (%25eko hazkundea). Suitzar bakoitzak gastatzen dituen 262,2 euroetatik urruti dago hori oraindik, baina joera argi baten seinale da, ezbairik gabe.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilutik bai esan dezakegu berton inskribatutako enpresen fakturazioak hazten jarraitzen duela

(%28,77 gehiago 2016an). Gauza bera esan dezakegu eragile ekologikoen kopuruari dagokionez. Arlo honetan, agian, hazkundea ez da nahi bezain nabarmena, baina urtetik urtera era egonkorrean eusten dio joerari. Egun, 514 eragile daukagu, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetan dezente homogeneouski banatuak. Gipuzkoak du ordezkartzarik handiena, 206 eragilerekin, jarraian datoz Bizkaia, 161 eragilerekin eta Araba, 147rekin.

ARABA, EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN BIDEAN

Azalerari dagokionez (3214 hektarea 2016an) joera antzekoa da, ezberdintasun batekin: kasu honetan, Araban batzen dira ziurtatutako lursailen erdia baino zertxobait gehiago. Arabako mahatsak eta landaketa estentsiboek markatzen dute aldea. Datozen urteetan alde hori handiago izatea nahiko genuke, Arabak ekoizpen ekologikoaren garapenerako duen potentzialtasuna kontuan hartuta.

Edonola ere, azpimarratzekoa da baratzegintza ekologikoak (bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan kokatzen dena) Euskal Autonomia Erkidegoan duen ezarpena: dagoeneko baratzegintza ekologikoa EAEn egiten den baratzegintza guztiaren %20tik gertu dago. Astiro, baina bagoaz.

Eta bidean, beste urte bat gehiago pasa da eta Bioterrarekin egiten dugu topo berriro. Nazioarteko Ingurumenaren Egunarekin batera egiten den erakustazokak hamalagarren urtemuga ospatzen du aurtun. Beste behin, elikagai ekologikoen ekoizle, eraldatzaile, merkaturatzaile eta kontsumitzaileen topagunea izaten ari da atzo ateak ireki zituen ekitaldi handi hau. ENEKeko eragileak, nola ez, handaude bertoko elikagai ekologikoen aniztasuna eta kalitatea eskaintzen. Aldaba Zahar elkartearen gazta eta ogi barietate anitza, Endaia okindegiaren eskaintza zabaldua, Ekotarrikoren plater prestatuak kontserban, Itxosteren marmeladak eta konbutxa, Arratzain sagardotegiko sagardoa, Goimar pentsuak, Bodegas Laukoterren ardo beltza, Olako eta Blasenea mintegien landare-eskaintza zenbatezina, Lurberryren fruitu txikiak, Ibarrako piperrren kooperatiba... EHKOLEktiboak, ENEKren laguntzarekin batera, jarriko duen talo-postua ahaztu gabe, noski!

Nabarmentzekoa eta eskertzekoa da, aurtun ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa Inguruena eta Lurralde Oreka sailak ekoizle ekologiko gipuzkoarrei eskaintzen dien laguntza, postuen kostuaren zati bat bere

gain hartuz. Bioterran dago ENEK bera ere, jendarte zabalarari gure ereduaren baloreak helarazteko helburuarekin. Gaztetxoenetan eragiteko indar berezia jarri nahi izan dugu hamalagarren ekitaldi honetan, horretarako ekintzak antolatuz (antzerki emanaldiak, askari ekologikoak, NIREA ekimenarekin batera prestatutako muralen koloreztatzea...) eta baita beste batzuetan lagunduz ere (FICOBArekin batera antolatutako landaketa-tailerrak). Neskato eta mutikoetan indarra jartzeak zentzu osoa dauka, etorkizuna beraien esku egongo baita, berandu barik.

Nazio Batuen Erakundearen Elikadura-eskubiderako kontalariak berak argi esan zuen iragan martxoan aurkeztutako txostenean: pestizida, herbizida, plagizida zein ongari sintetikoaren erabilera masiboan oinarritutako ereduari jarraipena ematea burugabea da. Eta gaineratu zenez, agroekologia da elikadura-eskubide unibertsalak bermatzeko eredu posible bakarra. Zatozte Bioterrara, etorkizuna martxan dago!

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua